

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	06 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
Atala:	0601 - Ogasun eta Finantzako Zerbitzu Orokorrak
Programa:	010 - Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala:	920 - Administrazio orokorra

Programa mota:

Departamentuaren egitura

Misioa:

Proposatzea, zuzentzea eta berrikustea Foru Aldundiaren 2020-2023aldiko helburu estrategikoak lortzeko zerga eta finantza arloko politikak. Horretarako, haiek ezartzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira, herritarrek zerbitzu publikoaz duten balorazioa egokia izatea lortuz. Laguntza juridiko eta tekniko ematea, departamentuko unitateek departamentu helburuak lortze aldera, betiere zerbitzu haren efizientziari lehentasuna emanez; halaber, departamentuko organoen legezotasunaren eta gastuen kontrol zereginak beteko ditu

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Ogasun eta Finantza Departamentuak Ekonomia Itunean araututako zerga sistema kudeatzen du, eta zerbitzu publikoak mantentzeko beharrezkoak diren baliabideak hornitzen ditu.

Herritarrek gogobetetze maila handia erakusten dute, zerbitzu kartetan jasotako balioak beteta.

Langileen zati handi bat lan bizitzaren denbora bukatzen ari da.

Baliabide teknologikoei dagokienez, etengabeko garapena beharrezkoa da.

Beharraren eboluzioa:

Programaren bidez, antolakundea modernizatzen jarraitu nahi da, bai eta departamentuak bere helburu estrategikoak betetzeko baliabideen efizientziarako tresna gisa funtzionatzea ere.

Gainera, erantzun nahi zaio departamentuko zerbitzuen funtzionamendu arrunterako behar diren baliabideak administratzeko beharrari.

Nori zuzendua:

Departamentuko langileak, eta herritarrak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Zuzendaritzak departamentuaren eremuan erabakiak hartzeko eskura dituen baliabideak, eta zerbitzu orokorren arloan beharrezkoak diren prozesuak gauzatzeko dauden baliabideak.

Diru baliabideak.

Informatika baliabideak.

2. Garatu beharreko

* Bultzatu departamentuaren Plan Estrategikoa.

* Identifikatu interes taldeak. Identifikatu antolaketaren, giza baliabideen eta baliabide teknologikoen arloko beharrak.

* Kudeatu langileak.

* Kudeatu aurrekontuak eta kontratuak.

* Sustatu Zerga eta Finantza Administrazioan bitarteko elektronikoak erabiltzea.

* Sustatu informazio trukaketa.

* Egin espedienteen izapidetze arrunta (barkatzeak, salaketak, ondare erantzukiunak...).

* Erregistroa eta agiritegia.

* Agiriaren tratamendua.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

* Departamentu antolaketa malgua, gizartearen eta bertako interes taldeen eskaeretikiko sentibera. Beharretara egokitutako plantilla.

* Aholkularitza.

* Kontratazio administratibotik eratorritako ondasun eta zerbitzuak.

* Administrazio Elektroniko zeharkako zerbitzuak.

* Informazioa trukatzeko zerbitzuak.

- * Datuak babesteko politika.
- * Izapidetutako espedienteak.

Programaren arau esparrua:

Administrazio, zerga eta finantza arloko legeria.


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Departamentua administrazio modernoaren erreferente bilakatzea, ingurune sozioekonomikoaren integrazioari, antolaketari eta berrikuntza teknologikoari dagokionez.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Erreala	Agintaldiko helburua
Aurrez aurreko baliabideak eta posta bidezkoak erabili beharrean, baliabide elektronikoak erabiltzeak erabiltzaileei ekarriko dien aurrezkiaren balioespena	Euroak	80.953.700,00	89.000.000,00	82.101.300,00	366.000.000,00
Elektronikoki erregistratutako izapideen ehunekoa.	Ehunekoak	84,67	80,00	84,26	85,00

Joera

Aurrez aurreko baliabideak eta posta bidezkoak erabili beharrean, baliabide elektronikoak erabiltzeak erabiltzaileei ekarriko dien aurrezkiaren balioespena – Euroak



Elektronikoki erregistratutako izapideen ehunekoa. – Ehunekoa



Memoria

L.1 - Gizartearen interesak departamentuak kudeatzen dituen politiketan integratzea

1. ekintza. Interes taldeekiko harremanen garapena

Interes taldeekiko harremanak batik bat lankidetzak sozialeko hitzarmenak sinatuz egiten dira, baita ordezkarien errolako aplikazio informatikoaren bitartez ere, zeina erabiltzen baita zerga kudeaketako profesionalekiko harremana kudeatzeko.

Gizarte lankidetzako hitzarmenei dagokienez, 2021eko ekainean eta uztailan bost hitzarmen sinatu dira 670, 671 eta 672 ereduak ZERGABIDEA plataformaren bidez bidaltzeko, honako entitate hauekin:

Gipuzkoako Gizarte Graduatuen Elkargo Ofiziala
Zerga Teknikarien eta Zerga Aholkularien Elkarte Profesionalen Espainiako Federazioa (FETTAF)
Ekonomialarien Euskal Elkargoa
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa
Madrilgo Abokatuen Elkargoa

Sinatutako hitzarmenek ahalbidetzen dute aurkeztu beharreko zerga ereduak ugaltzea, horretarako beharrezkoak diren tresna informatikoak garatu ondoren.

Gainera, 2021ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kudeatzaileen Elkargoarekin eta AEPROSER agentziarekin aurretik sinatutako gizarte lankidetzako hitzarmenak aldatu dira, 670, 671 eta 672 ereduak aurkezteko aukera sartzearen.

Ez dago aurreikusita gizarte lankidetzako hitzarmen gehiago sinatzea. Ereduen aurkezpen telematikoen kopurua handitzeko, beharrezkoa da elkargo eta elkarteetako kideak hitzarmenetan alta ematea. Alten erritmoa txikia da, aurreikusitakoa baino askoz txikiagoa. 2021ean, 49 profesionalek eskatu dute aipatutako hitzarmenak sinatzea, 670, 671 eta 672 ereduak aurkeztu ahal izateko.

Zerga ordezkarien eroldaren aplikazioari eta zerga kudeaketako profesionalekin hark duen loturari dagokienez, 2021ean datu hauek ditugu:

128 profesional berri (guztira 2.021 profesional daude alta emanda).
17.776 ordezkartza profesional berri (guztira 187.863 ordezkartza daude alta emanda).

2021eko azaroan argitaratu zen azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga arloko ordezkartza erolda arautzen duena. Foru agindu horretan, TicketBAI zerga betebeharrarekin lotutako ordezkartza eduki berriak sartuta daude, eta, gainera, ordezkartzei alta modu erabat telematikoa emateko aukerak zabaltzen dira.

2021eko abenduan egin zen urteroko topaketa iruzurraren aurkako hitzarmenaren sinatzaileekin. Idazkaritza

Memoria

Teknikoak azaldu zuen zer eragin izango duen ordezkartzari buruzko 614/2021 Foru Aginduak, eta sinatzaileen galderei erantzun zien ahoz nahiz ondoren Herritarren Arretarako Zerbitzuari egindako kontsultei idatziz komunikatuz. Bertaratuek hainbat iradokizun egin zituzten ordezkartza eroldaren funtzionamendua hobetzeko.

L- Antolaketa malgua eta zeharkakoa

1) Prestakuntza: Ogasun eta Finantza Departamentuko langile guztiek TicketBai proiektuaren funtzionamendua eta haren inplikazio legal eta teknikoak ezagutu ditzaten, aurren hitzaldi dibulgatibo bat antolatu da hiru foru aldundiek batera garatutako proiektu honen inguruan. 2021ean kanpoko hamaika ikastaro antolatu dira, eta denak on line egin dira.

2) Intraneta: argitara eman dira COVID-19ak sortutako egoerari buruzko informazio garrantzitsua eta departamentuak hartutako neurriak. Langileen esku jarri dira TicketBAIri buruz otsailean emandako hitzaldiaren aurkezpenak eta parte hartzaileei bidalitako inkestaren emaitzak. Gainera, langileen eskura jarri da Sinatzeke aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa. Telelanari dagokionez nobedadeak izan diren heinean, intranetean argitara eman da hari buruzko informazioa. Azkenik, departamentuan indarrean dagoen ordezkapenen araubideari buruzko informazioa ere argitaratu da.

3) Euskara:

Itzulpena:

a) Itzulpena. Erantzuna eman zaio, bereziki, ohiko itzulpen eskaerari. ItzulpenFlow aplikazioaren bidez, hainbat itzulpen eskaera kudeatu dira. Behar bezala erantzun zaie zerbitzuek eskatutako testu zuzenketei, bai eta haien kontsulta linguistikoei ere.

b) Aldundiaren kontratazio ereduen euskarazko bertsio bateratuaren proiektuan parte hartzen ari da.

Hizkuntza berdintasuna:

o Euskaraldia. Balorazioa egin da. Euskaraldiaren jarraipen batzordea bildu da.

o Errenta kanpainaren testuinguruan, "Hizkuntza aukeratu, zerbitzu bikaina hartu" ekimena diseinatu eta abiarazi da.

o Hizkuntzaren ikuspegia landu da TicketBAI sisteman Estrategia Teknologikoko Zuzendariordetzarekin batera.

o Departamentuko hizkuntza ezagutzari buruzko urteko txostena egin da.

o Departamentuko urteko hizkuntza planaren zirriborroa prestatu da.

o Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzak otsailetik ekainera antolatutako Soziolinguistika Ikastaroan parte hartu da.

o Herritarrek hizkuntza aukeratzeari emandako erantzunaren inguruan diseinatzeko ari den estrategiari buruzko aholkularitza eman zaio Aldundiari, Ogasunaren esperientzian oinarrituta.

o Hizkuntza gomendioak eta irizpideak eskaintzen ari zaizkie langile berriei eta haien arduradunei.

o Hainbat zerbitzuri aholku ematen ari zaie, euskara lan hizkuntza izateko bidean helburu eta ekintza linguistikoak ezartzeko: Aurrekontuak, Finantzak eta Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusia.

o Hizkuntza Berdintasunekoek eskatuta, parte hartu da trebakuntza linguistikoko programaren departamentuko antolaketa.

o Departamentuaren 2022rako Hizkuntza Plana idazten amaitu da.

4) Berdintasuna:

Jarraian, abenduaren 31ra arte egindako ekintzak deskribatzen dira:

Departamentuko berdintasun arloko lantaldearen bilera bat egin da, prozesu irekien inguruko bateratze lana egiteko, honako hauek parte hartuta: Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza (zuzendaria, Araugintzako zerbitzuburua, Erakundeekiko Konpromisoetako zerbitzuburua eta Azterlanetako atalburua), Idazkaritza Teknikoa (idazkaria, Zerbitzu Juridikoetako atalburua eta Berdintasun Unitatea) eta Finantza Zuzendaritza (Aurrekontuetako zerbitzuburua).

Go.5.2.2 ekintzaren barruan, departamentuan bi prestaketa bilera egin dira berdintasun organoarekin egin beharreko prozesurako (identifikatu nahi izan dira hobekuntza bideragarriak eta zerga araudian genero eraginari buruzko aurretiazko txostenak egiteko behar espezifikoak). Araugintza, Erakundeekiko Konpromisoak eta Idazkaritza Teknikoa. Berdintasunerako organoarekin bilera egin da, zerga araudian genero ikuspegia txertatzeko prozesua diseinatzeko.

2021eko azaroaren 30ean, Ogasun Departamentuaren araudian genero ikuspegia txertatzeko 2022ko prozesua aurkezteko saioa egin da.

Aurrekontuko programen genero ikuspegia aztertzeke prozesua: Berdintasun Unitatearen bidez parte hartu

Memoria

da (proiektu pilotua), eta 6 saio egin dira, denak online.

Berdintasunerako unitateen prestakuntza: hasierako prestakuntza ekintza amaitu da, Berdintasunerako Organoak egindako programaren arabera: 40 orduko 4 modulu, 6 astetan zehar (Moodle plataforma eta Zoom saioak), eta amaierako saioa (online). Berdintasunari buruzko 6 prestakuntza saioko prozesuan parte hartzea, honako gai espezifiko hauetan: Datu bereiziaz / kontratazioa eta dirulaguntzetako klausulak / arau eta planetako genero eraginari buruzko ebaluazio txostenak / Plangintza estrategikoa / genero ikuspegia duten aurrekontuen eta giza baliabideen kudeaketak.

Departamentuko informazioa bidali da proiektu honetarako: «Gipuzkoako Foru Aldundian informazioa sortzen duten euskarrietan sexu aldagaiaren presentziari buruzko diagnostikoa».

L.3 - Administrazio elektronikoa.

1. ekintza. Negozio aplikazioen mantenimendu eta bilakaera

Ogasun eta Finantza Departamentuaren negozio aplikazioetarako aurten onartu den aurrekontua honako hau da:

Aplikazioak 2021 Exekuzio %

Aplikazio informatikoak. IZFE 5.408.180 € % 96,57

ZERGA plataforma tributario berria 1.249.996 € % 86,17

Digitalizazioa. Plataformen modernizazioa 379.520 € % 96,70

Big Data proiektua 300.000 € % 99,99

BIH proiektua 500.000 euro. % 97,52

Iruzuraren aurkako borroka (TicketBAI) 800.000 euro. % 98,55

ZIURTAGIRIAK plataforma 264.000 € % 99,56

ITZULKETAK plataforma 264.000 € % 98,47

Tramitatzaileria 500.000 euro. % 88,82

Mantentze lanen eta aldizkako harpidetzen berritzea 58.118 € % 69,38

Guztira 9.723.814 € % 95,95

Urtearen amaieran ia bete da 2021eko Informatika Planean aurreikusitako gastua

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gizartearen interesak departamentuak kudeatzen dituen politiketan biltzea.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	51.711,86	51.711,86	37.699,71		
1.1 Ekintza					
Interes taldeekiko harremanen garapena	51.711,86	51.711,86	37.699,71		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Antolaketa malguan eta zeharkakoan oinarritutako lan ereduaren aurrera egitea.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	122.091,72	122.091,72	73.272,86		
2.1 Ekintza					
Proiektua partekatzea antolakundeko kolaboratzaile eta langileekin	36.711,86	36.711,86	36.636,43		100,00
2.2 Ekintza					
Informazio eta lankidetzaren baliabideen inplementazioa, partaidetza bultzatuta	85.379,86	85.379,86	36.636,43		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Informazio sistema integratuak garatzea, zerga betebeharren konplimentua, iruzurraren aurkako lana eta kudeaketa finantzario efizientea errazteko. Administrazio elektronikoa. Plan informatikoa.



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	5.904.241,72	5.966.241,72	5.791.002,47		
3.1 Ekintza					
Negozio-aplikazioen mantentzea eta bilakaera	5.904.241,72	5.586.721,72	5.424.015,63		100,00
3.2 Ekintza					
Modernizazioa, digitalizazioa eta plataforma teknologikoen berriztatzea		379.520,00	366.986,84		100,00

Konpromiso kredituak

	Hasierako konpromiso kredituak	Behin betiko konpromiso kredituak	Etorkizuneko ekitaldietarako konprometitua
Jarduketa ildoak, guztira		4.500.000,00	3.250.000,00

Hasierako
konpromiso
kredituak

Behin betiko
konpromiso
kredituak

Etorkizuneko
ekitaldietarako
konprometitua

3.2 Ekintza

Modernizazioa, digitalizazioa eta
plataforma teknologikoen
berriztatzea

4.500.000,00

3.250.000,00


Departamentuaren jarduketa operatiboa

Urteko helburua: Laguntza teknikoa ematea departamentuko unitateak behar bezala molda daitezen


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Errealak	Agintaldiko helburua
Izapidetutako espedienteen artean, epean ebatzitakoen ehunekoa	Ehunekoa	98,95	97,00	98,70	100,00
Mantentzearen gastu arrunta, metro koadro bizigarri bakoitzeko	Euroak	148,00	150,00	115,00	140,00

Joera

Izapidetutako espedienteen artean, epean ebatzitakoen ehunekoa – Ehunekoa



Mantentzearen gastu arrunta, metro koadro bizigarri bakoitzeko – Euroak



Memoria

L.1 - Langileak

Postu ordezkapenak eta betetzeak: 2021ean 102 langile mugimendu egin dira ordezkapenen (beste pertsona batek betetako plazak) eta betetzeen artean. Gainera, aurreko praktiketako funtzionario lanpostuaz jabetu dira 2019ko lan eskaintza publikoetan (arkitektoak eta delineatzaileak) plaza lortu duten langileak. Guztira, 3 pertsona gehiago dira, eta lanpostura itzuli den beste pertsona bat.

Aldi baterako programak: departamentuko zenbait zerbitzuri eragiten dien TicketBAiren aldi baterako programa berria 29 langile berri sartu dira. Gainera, beste hiru luzapen eskatu eta eman dira aldi baterako beste hainbeste programatarako.

LPZren aldaketak: aurreko Diputatuen Kontseiluak LPZren lau aldaketa onartu ditu eta, ondoren, argitarara eman dira GAO-n. Aldaketa horiek ondorioz, 8 lanpostu amortizatu, 7 lanpostu berri sortu, 11 lanpostu aldatu eta lanpostu 1 berriro atxiki da. Gainera, Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa onartu da. Programa exekutatzeko, EMko 22 teknikari lanpostu amortizatuko dira, GMko 22 teknikari lanpostu sortuko dira, eta Kudeaketako EMko 27 teknikari lanpostu aldatuko dira (azken horiek «iraungitze» dira). Jarraian azaltzen da nolako ekintzetan ere lagundu zaion departamentuari plantillen kudeaketarekin eta funtzio publikoarekin lotutako gaietan:

Sinadura elektronikoak: 105 sinadura daude berrituta edo alta emanda.

Hodeiko profesionalaren ziurtagiriak: mota horretako 79 ziurtagiri eman dira.

Erretiroak: gaur arte, 16 langilek hartu dute erretiroa.

Lanpostua bi kasutan utzi da ezintasun iraunkor osoagatik, 12 uko egite egin dira, eta 2 kasutan langileak kargugabetu dira.

L.2 - Bulegoak

Jarraian, 2021. urtean egindako lanak deskribatzen dira:

Donostiako Sekundino Esnaola bulegoan airea berritzeko eta klimatizazio sistema ordezteko lanak egin dira.

Errotaburu 2ko beheko solairuan egokitu egin da herritarrentzako arreta gunea, eta bertan manparak jarri dira covid-19tik babesteko eta lanpostuen pribatutasuna bermatzeko.

Errotaburu 2ko 5. eta 6. solairuak zaharberritu dira eta Ikuskaritzako Zuzendariordetza bertara eraman da.

Donostiako Sekundino Esnaola bulegoan argiztapen ekipoen ordezkari efizienteagoak jartzeko lanak egin dira.

Sekundino Esnaola eta Azpeitiko bulegoetako larrialdietako argiteria sistema ordeztu da.

Errotaburu 2ko beheko solairuko eta Herritarren Arretarako Zerbitzuko bulegoetako jendaurreko eremuak

Memoria

aldatu dira, TicketBAI kanpainara egokitzeko.

Wifi antenak instalatu dira Errotaburu 1eko eta 2ko bilera geletan.

Errotaburu 2ko beheko solairuko jendaurreko eremuko eraikuntza elementuak egokitu dira, egindako azterlan teknikoan oinarrituta, eremu horretako ulergarritasun arazoak konpontzeko.

L.3 - Aurrekontua

Urteko kontratazio plana aurreikusitako eran betetzen ari da.

- 1.- Kontratua formalizatu da Ogasun eta Finantza Departamentuaren informazio zenbaki bakarraren bidez informazio, laguntza eta telefono zerbitzuak emateko (H21031 espedienteak).
- 2.- Adjudikatu eta formalizatu da urteko errenta kanpainan Gipuzkoako Foru Aldundiaren errenta mekanizatuko bulegoetan laguntzeko zerbitzuen kontratua (H21034 espedienteak).
- 3.- Adjudikatu eta formalizatu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren bulegoetan eta egoitza nagusian airea berritzeko eta klimatizazioko instalazioak mantentzeko zerbitzuaren kontratua (H21032 espedienteak).
- 4.- Adjudikatu eta formalizatu da Gipuzkoako Foru Aldundiari efektu tinbredunak hornitzeko kontratua (H21033).
- 5.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantza kaudimenaren kalifikazioa (ratinga) emateko eta berrikusteko atxikipen kontratua formalizatu da (H21045 espedienteak).
- 6.- Adjudikatu eta formalizatu da 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 125. artikuluan jasotako egiaztapen administratiboak egiteko eta batasuneko egiturazko kofinantziazioaren kudeaketan laguntza teknikoa emateko kontratua (H21035 espedienteak).
- 7.- Zerbitzu profesionalen kontratua adjudikatu eta formalizatu da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren urteko kontuak (2020tik 2022ra bitarteko ekitaldien amaieran formulatuak, biak barne (1. lotea). eta Miramar Jauregia Partzuergoaren urteko kontuak (2020ko ekitaldiaren amaieran formulatuak [2. lotea]) kontabilitate erregularitasunaren ikuspegitik auditatzeko - (H21036 espedienteak).
- 8.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko informazio, laguntza eta telefono zerbitzuen kontratua adjudikatu eta formalizatu da, 1. lotean (zerbitzu arrunta) eta 2. lotean (errenta kanpaina) banatuta (H21052 espedienteak).
- 9.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko egoitza nagusia eta bulegoak mantentzeko zerbitzuen kontratua adjudikatu eta formalizatu da (H21055 espedienteak).
- 10.- Aurretiazko izapidez onartu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Datuak eta Dokumentuak Tratatzeke Zerbitzuaren espedienteak (H22001 espedienteak).
- 11.- TicketBAI publizitate kanpainako baliabideak kudeatzeko espedienteak prestatu da, onartua izan dadin (H22002 espedienteak).
- 12.- 17 enkargu egin zaizkio IZFE SAr. 2021eko aurrekontu ekitalditik aurrera, ekitaldi batetik aurrera gauzatzea aurreikusten den proiektu berezien enkarguak urte anitzeko aurrekontu kredituekin izapidetuko dira. Horrela, lehenago aipatutako 17 enkarguetatik 8tan urte anitzeko aurrekontuak izapidetu dira. Horri esker, murriztu egiten da mandatu horien tramitazioak dakarren karga burokratikoa. Ikus mandatu horien exekuzioari buruzko azalpenak hemen:010 programa (HE.39, L-3, 1. ekintza). Urteko enkargu bat eta proiektu berezien enkargu bat aldatu dira, zenbatekoa murrizteko.
- 13.- 39 kontratu txiki adjudikatu dira, eta 3 SPKLren 9. xedapen gehigarriari jarraituz arautu dira.

L.4 - Espedienteen tramitazioa

Departamentuari dagozkion xedapenak eta espedienteak garaiz tramitatzen eta bultzatzen ari dira.

Espediente mota desberdinetatik etorritako datu metatuak:

1. 695 foru agindu, zuzendaritzen 769 ebazpen, Idazkaritza Teknikoaren 67 ebazpen eta Diputatuen Kontseiluaren 173 erabaki onartu eta izapidetu dira.
2. Zehapenak barkatzeko 344 eskaera ebatzi dira (haietatik 6 epez kanpo izapidetu ziren) eta 76 espediente izapidetzen ari dira, 2021era arte izandako sarrerei dagozkienak; iruzur fiskaleko 172 salaketa sartu dira.
3. Ondare erantzukizuna erreklamatzeko espedienteek dagokienez, 24 epai exekutatu dira, denak ere ondare erantzukizuneko espedienteek dagozkienak, eta haietan erreklamaturako zenbatekoak eta interesak ordaindu dira (7 foru agindu bidez eta 17 Diputatuen Kontseiluak erabakita). Ondare erantzukizuneko erreklamazio bat ezetsi da.
4. Hirugarren perituen izendapenei dagokienez, zerrenden zozketa egin da (2021eko urtarrila), hirugarren perituaren bi izendapen egin dira eta espedienteetako bat amaitu da.
5. Hitzarmenei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

Memoria

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzea 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan.

Lankidetzaz Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundien artean, berehalako informazio horniduran erabiliko den errolda instrumental bat osatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Ekonomialarien Euskal Elkargoaren arteko lankidetzaz, zerga eredu batzuen aurkezpenean obligazioak kudeatzeko eta betetzeko laguntza lanak egiteko oinarritzko lankidetzaz esparrua ezartzearen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Madrilgo Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzaz, zerga aitorten puntualak aurkezteko eta ordaintzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzaz, zerga aitorten puntualak aurkezteko eta ordaintzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kudeatzaileen Elkargo Ofizialak zergen kudeaketaren arloko lankidetzaz hitzarmenaren luzapena sinatu dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren arteko lankidetzaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Agentziari kudeaketa mandatua egiteko, tratatu dezan eta autonomia erkidegoen, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ceuta eta Melilla hirien esku jar dezan, haiek hala eskatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasuneko zerga informazioa, 5/2021 Errege Lege Dekretuaren I. tituluan araututako autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzak izapidetzeko behar dutena, bai eta mandatu prozedura horren ondoriozko informazio trukeen baldintzen eta prozeduren esparru orokorra ezartzeko ere.

Berrikuspena egiten hasi da, udalen eta mankomunitateen zuzenbide publikoko diru sarreren diru bilketa exekutiboren hitzarmen tipoa eguneratzeko.

Oharra: zerga kudeaketako lankidetzaz hitzarmenak. 010 programa, HE.39, L-1, 1. ekintza. Interes taldeekiko harremanen garapena.

L-5 - Zerbitzu orokorrak

Erregistro eta artxiboa, biltegia, erreprografia, liburutegia, datu bilketa eta itzulpen zerbitzuak puntualki erantzuten ari dira.

L.6 - Administrazio elektronikoko sistemak

1. ekintza. Departamenturako garatu eta mantentzea identifikazio eta ordezkartza sistemak eta komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak, espediente elektronikoa eta artxibo elektronikoa.

Ordezkaritza. Aplikazioan hobekuntzak eta aldaketak egin dira, lehenetsuen hurrenkera baten arabera. Aurtengo lehen seihilekoan zehar errealerara pasatu dira aurreikusita dauden kanpainetan egin beharreko komunikazio eta jakinarazpenak. Horrek ahalbidetzen du errolda eguneratuta edukitzeko aurreikusita dauden kanpainak gauzatzea. Ordezkarien erroldan aldaketak egin dira, eta horrek zenbait izapide egiteko leihatilara joan behar duten pertsonen kopurua murriztea ekarriko du. Aurreikuspenen arabera, urtean 1.400 pertsona gutxiago etorriko dira arreta bulegoetara. Jakinarazpena. Garapena hobetu da arrakastarik gabeko jakinarazpenetan eta atzerrira egindakoetan (ez-egoiliarak). Hobekuntza prozesuak ez dira amaitu. Atzerrira egindako jakinarazpenen arazoa definituta dago eta konpontzekotan da. Emaizarik gabeko jakinarazpenek oraindik ez dute lortu arazoaren jatorria hautematea. Nolanahi ere, konponbidearen zati handi bat departamentutik kanpoko aplikazioen garapenetatik igarotzen da.

Artxibo elektronikoa. 2021ean erabaki da errenta mekanizatuko 2020ko kanpainan jasotako dokumentazioa eskaneatzea. Horrek aukera emango die berrikuspenaz arduratzen diren langileei dokumentazio hori ekipo informatikoetatik eskuratzeko. 2021eko kanpainako errenta aitortzen eskaneatzea optimizatzeko planteamendu bat egin da.


2. ekintza. Kanpainak egitea behartutako kolektiboak bitarteko telematikotara egokitzea errazteko.

Ekintza honi dagokionez, esan behar da ez dela inongo kanpainarik egin. Ez dago derrigortutako kolektibo berririk.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Administrazio elektronikoaren sistemak ezartzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.555.754,04	1.630.754,04	1.630.413,52		
1.1 Ekintza					
Honako hauen garapena eta mantenimendua: identifikazio eta ordezkari sistema, komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak, espediente elektronikoa eta departamenturako artxibo elektronikoa.	1.481.779,65	1.556.779,65	1.556.591,10		100,00
1.2 Ekintza					
Harreman telematikoen zabalpena pertsona juridiko eta nortasun juridikorik gabeko entitate guztien artean	73.974,39	73.974,39	73.822,42		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Departamentuko langileria politika inplementatzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	236.465,53	236.465,53	235.994,37		
2.1 Ekintza					
Departamentuari esleitutako helburuetara hobekien egokitzen den funtzio publikoko ereduak aztertzea eta eskumeneko departamentuari proposatzea.	73.423,72	73.423,72	73.272,87		100,00
2.2 Ekintza					
Lanpostu Zerrendaren, plantillen, lanorduen kontrolaren eta ordezkapenen kudeaketa, eta departamentuko unitateentzako langileria arloko laguntza	95.450,85	95.450,85	95.254,72		100,00

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
2.3 Ekintza Departamentuko prestakuntzako berariazko planaren bultzada eta garapena	67.590,96	67.590,96	67.466,78		100,00

3. Jarduketa ildoak:

Lokalak eta instalazioak konpondu, artatu eta mantentzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	2.817.109,86	2.951.109,86	2.776.451,51		
3.1 Ekintza Lokal eta instalazioak mantentzeko zerbitzuak ematea	1.383.906,49	1.561.906,49	1.483.766,07		100,00
3.2 Ekintza Kanpora ateratako zerbitzuen efizientziaren kontrola (segurtasuna, garbiketa)	1.359.779,65	1.315.779,65	1.219.412,57		100,00
3.3 Ekintza Bulegoak Egokitzeke Plana lantzea eta ezartzea.	73.423,72	73.423,72	73.272,87		100,00

4. Jarduketa ildoak:

Aurrekontua kudeatzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	166.203,37	166.203,37	164.863,97		
4.1 Ekintza Kontratazio espedienteen tramitazioa eta kontrola	73.423,72	73.423,72	73.272,87		100,00
4.2 Ekintza kontabilitate tramitazioa eta exekuzio kontrola	92.779,65	92.779,65	91.591,10		100,00

5. Jarduketa ildoak:

Espedienteak tramitatzekeo efikazia eta efizientzia hobetzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	225.272,41	225.272,41	212.864,87		
5.1 Ekintza					
Barkatze espedienteak tramitatzekeo aplikazio berria.	74.992,76	74.992,76	74.824,40		100,00
5.2 Ekintza					
Departamentuko xedapenen eta esleitutako espedienteen tramitazioa eta bultzada	150.279,65	150.279,65	138.040,47		100,00

6. Jarduketa ildoak:

Genero ikuspegia departamentuen plan estrategiko guztietan sartzeko saioa orokortzea



% 100,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	676.813,48	676.813,48	666.425,45		
6.1 Ekintza					
Sarrera-irteerak erregistratu eta agiriak artxibatzekeo zerbitzuak	293.694,88	293.694,88	293.091,48		100,00
6.2 Ekintza					
Biltegi, kopia eta liburutegi zerbitzuak	309.694,88	309.694,88	300.061,10		100,00
6.3 Ekintza					
Itzulpen zerbitzuak	73.423,72	73.423,72	73.272,87		100,00

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren eboluzioa:

Zerbitzu Orokorretako programan jasota daude Zuzendaritzak bultzatzen dituen departamentuaren helburu eta ekintza orokorrak, bai eta Idazkaritza Teknikoari dagozkion laguntza eta koordinazio helburu eta ekintzak ere. Hizkuntza berdintasuneko helburuei dagokienez, Zuzendaritzari dagokio euskara zerbitzu eta lan hizkuntza moduan erabiltzen dela sustatzea. Bestetik, Idazkaritza Teknikoari dagokio hizkuntza berdintasuneko urteko planari jarraipena egitea eta jarduketa jakin batzuk gauzatzea.

Kuantifikazioa: 411.834,24 (% 2,77)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 8,33)	Neurria: Bidaltzea komunikazioen % 100 zergadunek hautatutako hizkuntzan. Tresna: Komunikazio idatzien eta elektronikoen bidalketaren azterketa eta planifikazioa. Egiaztagarria: Inplikaturako zerbitzuek jarraipena eginez.	100,00
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 8,33)	Neurria: % 100ean bermatzea zergadunen hizkuntza hautua Errotaburu 2ko sarrerako zaindarien zerbitzuan. Tresna: Enpresa emakida hartzaileari jakinaraztea eta esaldi erabilien biltzea. Egiaztagarria: Idazkaritza Teknikoak jarraipena eginez.	100,00
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 8,33)	Neurria: Lortzea zerbitzuek Agiritegiari egindako espediente eskaeren % 25 euskaraz egiten dela. Tresna: Neurria Agiritegi eta departamentuko langileei jakinaraztea. Egiaztagarria: Unitateak jarraipena eginez.	100,00
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 25,00)	3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak	100,00
		Neurria: Elkarriketen % 50 euskaraz izatea ataleko langileek departamentuko zerbitzuekin eta Langileria Zerbitzuarekin telefonoz dituzten hizketaldietan. Tresna: Neurria langileei proposatzea. Egiaztatzeko modua: Zerbitzu Teknikoek jarraipena eginez	100,00
		Neurria: Lortzea KPEko bilera informatiboen % 75 euskaraz izatea, partaideek ulermen nahikoa dutenean. Tresna: Bileren hizkuntza protokoloa aplikatuz. Egiaztagarria: Deitzaileek bilerei jarraipena eginez.	100,00
		Neurria: Lortzea talde dinamiketan bileren % 50 euskaraz izatea, partaideek ulermen nahikoa dutenean. Tresna: Bileren hizkuntza protokoloa aplikatuz. Egiaztagarria: Deitzaileek bilerei jarraipena eginez.	100,00

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
3.4. Baliabide informatikoak	(% 25,00)	Neurria: Lortzea langileen % 50ek aplikazio informatikoaren euskarazko bertsioa erabiltzen duela. Tresna: neurria langileei jakinaraztea. Egiaztagarria: Zerbitzuak jarraipena eginez.	100,00
		Neurria: Lortzea sistema horiek kudeatzen dituzten langileen % 25ek euskarazko bertsioa erabiltzea dena delako aplikazio informatikoetan. Tresna: Neurria inplikaturako langileei jakinaraztea. Egiaztagarria: Inplikaturako langileei galdetuz.	100,00
		Neurria: IZFERi eskatzea aplikazio berriak aurkeztean hizkuntza ikuspuntua aplikatu dezala. Tresna: Zuzendaritzak IZFERi bidali beharreko komunikazioaren prestaketa. Egiaztagarria: Urte amaieran IZFERi eskatuz aurkezpenen hizkuntzaren datua.	100,00
4.2 Laneko prestakuntza	(% 8,33)	Neurria: Mantentzea barne prestakuntzako euskarazko orduen kopurua ordu guztien % 30etik % 50era bitartean. Tresna: Prestakuntzaren planifikazioa. Egiaztagarria: Prestakuntzako hizkuntza adierazleen inguruko sei hilabeteetako eta urteko datuak lortuz	100,00
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	(% 8,33)	Lortzea % 60ra iristea departamentuarekin euskaraz harremana duten udal sektore publikoko entitateak. Tresna: Komunikazioa prestatzea eta Zuzendaritzak haiei bidaltzea. Egiaztagarria: Entitateen erantzuna sisteman sartuz.	100,00
6.1. Estrategia: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	(% 8,33)	Neurria: Lortzea % 25 murriztea zerbitzuek egiten dituzten testu laburren itzulpen eskaerak. Tresna: Dena delako zerbitzuei proposatzea beraiek testu laburren sorkuntza elebiduna kudeatzea. Egiaztagarria: Itzultzaileek jarraipena eginez.	100,00

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.		11.515.715,87	3.250.000,00
 17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.		73.272,86	
Guztira		11.588.988,73	3.250.000,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Behin betiko Aurrekotua Ppto Definitivo	Baimendua Autorizado	Xedatua Dispuesto	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.835.593,00	1.835.593,00	1.832.885,02	1.832.885,02	1.832.885,02	99,85
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	3.858.822,00	3.721.822,00	3.530.703,86	3.530.703,86	3.477.206,46	93,43
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	5.694.415,00	5.557.415,00	5.363.588,88	5.363.588,88	5.310.091,48	95,55
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	6.061.249,00	6.469.249,00	6.447.612,07	6.447.612,07	6.278.897,20	97,06
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	6.061.249,00	6.469.249,00	6.447.612,07	6.447.612,07	6.278.897,20	97,06
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	11.755.664,00	12.026.664,00	11.811.200,95	11.811.200,95	11.588.988,68	96,36

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako konpromiso kredituak Créditos de compromiso iniciales	Behin betiko konpromiso kredituak Créditos de compromiso definitivos	Baimendutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso autorizados	Xedatutako konpromiso kredituak Créditos de compromiso dispuestos	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS					
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES					
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		4.500.000,00	3.250.000,00	3.250.000,00	72,22
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		4.500.000,00	3.250.000,00	3.250.000,00	72,22
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS					
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS					
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras					
Guztira / Total		4.500.000,00	3.250.000,00	3.250.000,00	72,22

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	184.245,44	1.648.639,63		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	94.995,87	3.382.210,59		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	279.241,31	5.030.850,22		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	5.622.733,73	656.163,47	3.250.000,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	5.622.733,73	656.163,47	3.250.000,00	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	5.901.975,04	5.687.013,69	3.250.000,00	
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	49,07	47,29	72,22	

Programaren datu orokorrak

Departamentua: 06 - OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0610 - Ogasun Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - Zerga Administrazioa
Funtzionala: 932 - Zerga sistemaren kudeaketa

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Kudeatzea pertsonen kontribuzioak, horretarako haien diru ahalmenera egokituta, herri zerbitzuak mantentzeko nahikoak izan daitezkeen baliabideak sortze aldera.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Diru sarrera gehienek ordainketa borondatez egiten da. Borondatezko ordainketa errazteko, departamentuak kalitatezko zerbitzuak ematen ditu, nahiz eta hobekuntzak egin daitezkeen. Dena den, Gipuzkoan bada jarraitu beharreko iruzurraren ehuneko jakin bat.

Beharraren eboluzioa:

Proposatzea eta ezartzea zergadunek beren zerga obligazioen borondatezko betetzea errazteko. Zerga iruzurraren aurka borrokatzea, eta hobetzea zergadunen borondatezko betetze maila hobetzea.

Nori zuzendua:

Gipuzkoan bizi edo jarduten diren pertsonak eta entitateak.
Beste esku hartzaile batzuk: entitate laguntzaileak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Giza baliabideak. Diru baliabideak. Informatika baliabideak. Birkontratazioak.

2. Garatu beharreko

Zerga obligazioen betetzea errazten duten zerbitzuak, eta obligazio horien betetzea kontrolatzeko jarduketak, betiere bitarteko informatiko modernoak erabilia.
Aholkularitza zerbitzuak. Zerbitzu telematikoak. Kanpainako zerbitzuak.
Urteko egiaztapen planaren prestaketa eta ezarpena.
Foru ogasunen baterako jarduketa
Informazio trukea
Datuen kudeaketa

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Egiaztapen Plana.
Foru Ogasunen Plan Bateratua.
Informazioa trukatzeko hitzarmenak.
Obligazioak betetzea errazten duten tresna telematikoak.

Programaren arau esparrua:

Zerga, merkataritza, zibil, lan eta zigor arloko araudia. Legeria administratibo orokorra.

2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Zerga iruzurra prebenitzea eta aurre egitea.

Adierazlea

Neurri-
unitatea

Azken
balioa

2021-eko
Aurreikuspena


2021-eko
Erreala

Agintaldiko
helburua


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Erreala	Agintaldiko helburua
Iruzurraren aurkako borrokaren emaitzen ehunekoa, diru bilketari dagokionez	Ehunekoa	6,04	8,30	6,81	8,30
Egiaztapen Planean aurreikusitako zorpeko zenbatekoaren betetze maila	Ehunekoa	194,20	100,00	146,50	100,00
Egiaztapen Planean aurreikusitako jardueren betetze maila.	Ehunekoa	150,00	100,00	125,50	100,00

Joera


Iruzurraren aurkako borrokaren emaitzen ehunekoa, diru bilketari dagokionez – Ehunekoa



Egiaztapen Planean aurreikusitako zorpeko zenbatekoaren betetze maila – Ehunekoa



Egiaztapen Planean aurreikusitako jardueren betetze maila. – Ehunekoa



Memoria

L.1- Egiaztapen planak definitu eta garatzea, urteko ikuskapen planak eta iruzurraren aurkako plan bateratuak barne.

A.1 Zerga Egiaztapenerako Plana, Ikuskapen Plana eta Iruzuraren aurkako Plan Bateratua definitzea.
Zerga Egiaztapenerako Plana, Ikuskapen Plana eta Iruzuraren aurkako Plana definitu eta onartu dira.

A.2 Zerga Egiaztapenerako Plana gauzatzea.
Zerga Egiaztapenerako Plana (Ikuskapen Planaren helburua) gorabeherarik gabe betetzen ari da.

L.2- Iruzuraren aurkako borrokaren datuen neurketa berrikustea eta beste lurralde historikoekin harmonizatzea.

A.1 Iruzuraren aurkako Plan Bateratuaren emaitzen txostena prestatzea.
Beharrezko datuak prestatu dira Iruzuraren aurkako Plan Bateratuaren emaitzen txostena maiatzan aurkezteko.

A.2 Iruzuraren aurkako borrokaren urteko emaitza Diputatuen Kontseiluan eta Batzar Nagusietan aurkezteko.
Era berean, beharrezko informazioa prestatu da iruzurraren aurkako borrokaren urteko emaitza Gobernu Kontseiluari eta Batzar Nagusiei aurkezteko. Aurkezpena martxoan egin zen.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Egiaztapen planak definitzea eta garatzea, urteko ikuskapen planak eta iruzurraren kontrako borrokarako elkarrekiko planak barnean hartuta.



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.200.859,54	1.200.859,54	1.162.342,56		

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.1 Ekintza Ikuskapen Plana, Zerga Egiaztapenerako Urteko Plana eta Iruzuraren aurkako Plan Bateratuaren definizioa.	596.429,77	596.429,77	581.171,28		100,00
1.2 Ekintza Zerga Egiaztapenerako Planaren exekuzioa	604.429,77	604.429,77	581.171,28		100,00

2. Jarduketa ildoak:

Iruzuraren aurkako borrokari buruzko datuen neurketa berrikustea eta beste lurralde historikoekin harmonizatzea



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak


	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	289.431,55	289.431,55	240.370,37		
2.1 Ekintza Iruzuraren aurkako Plan Bateratuaren emaitzen txostena prestatu	126.799,44	126.799,44	124.949,90		100,00
2.2 Ekintza Iruzuraren aurkako borrokaren urteko emaitza Diputatuaren Kontseiluaren eta Batzar Nagusien aurrean aurkeztea	162.632,11	162.632,11	115.420,47		100,00

Urteko helburua: Departamentua administrazio modernoaren erreferente bilakatzea, ingurune sozioekonomikoaren integrazioari, antolaketari eta berrikuntza teknologikoari dagokionez.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2021-eko Aurreikuspena	2021-eko Errealak	Agintaldiko helburua
Elektronikoki erregistratutako izapideen ehunekoa.	Ehunekoak	84,67	80,00	84,26	85,00
Elkarreragingarritasun plataformaren bitartez emandako datuen ehunekoaren hazkundea	Ehunekoak	0,00	35,00	19,00	100,00

Joera

Elektronikoki erregistratutako izapideen ehunekoa. – Ehunekoa



Elkarreragingarritasun plataformaren bitartez emandako datuen ehunekoaren hazkundera – Ehunekoa



Memoria

L.1- Informazio sistema integratuak garatzea, zerga betebeharren konplimendua, iruzurraren aurkako borroka eta finantzen kudeaketa efizientea errazteko. Administrazio elektronikoa. Plan informatikoa.

A.2 Erronka berriak:

Dagoeneko amaitu da zergadunei beren negozioak kudeatzeko datu interesgarrien aginte koadroak eskaintzeari buruz enpresa espezializatu batek egin duen azterketa, TicketBAItik lortzen den zerga informaziotik harago doana.

A.3 Ekonomia berriaren erronkak inplementatzea. TicketBai:

2021eko urtarrilaren 1az geroztik, TicketBAI fitxategiak ari dira jasotzen errealean, eta horrek posible egiten du bai Administrazioak, bai zergadunek eta bai garatzaile informatikoei balioztapenak inplementatzea datuen kalitatea eta erroreen kudeaketa datu errealekin egiaztatzeko.

2021eko abenduaren 31ra arteko laburpena:

TicketBAI 2021

Jasotako fakturak 1.742.989

Memoria

Jaulkitzaileak 3.638
Softwareak (lanean) 165
Erregistratutako softwareak (GI) 654 - 303 %46
Softwarea euskaraz 138 %21
Probako soft. 638

A.4 Modernizazio, digitalizazio eta plataforma teknologikoen berrikuntza:

Ekintza hau 10 programaren baitan burutu da, ez 100 programaren barnean.

A.5 Elkarreragingarritasun sistemak eta informazioa trukatzekoak inplementatu eta garatzea.

Datu eskaera asko jasotzen eta erantzuten ari dira martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako laguntzekin lotuta. Lege dekretu horretan, ezohiko neurriak ezarri ziren enpresa kaudimenari laguntzeko, Covid-19aren pandemiaren testuinguruan.

A.6 Negozio aplikazioen mantenimendua eta bilakaera:

Bermeen aplikazio berria: %80eko aurrerapen maila.
Kautelazko neurrien aplikazio berria: % 60eko aurrerapen maila.
Konkurtsu prozeduren aplikazio berria: % 40eko aurrerapen maila.
GEA mantentzea eta 1. faseko gerorapenak: % 62ko aurrerapen maila.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Informazio sistema integratuak garatzea, zerga betebeharren konplimendua, iruzurraren aurkako lana eta kudeaketa finantzario efizientea errazteko. Administrazio elektronikoa. Plan informatikoa.



% 100,00

